

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1643

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 27koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeko proiektua. Aperribai-Galdakao tartea»k ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzen duena, eta titularrei dei egiten diena okupazioaren aurreko aktak egiteko.

BMTko 5. linea berria Sarratuko (Basauri) eremuan hasiko da eta Galdakaoko ospitalean amaituko da. Ekialdera Bilbo Metropolitarran muga egiten duen azken udalerrria den Galdakaoko biztanleei eta Basauriko Sarratu auzoari zerbitzua emateko diseinatu da.

Xede horretarako, lineak bost geltoki ditu ibilbidean, bat Basaurin eta beste laurak Galdakaon: Sarratuko geltoki intermodala (Basauri), Aperribai, Bengoetxe, Galdakao hirigunea eta ospitalea.

Aperribai-Galdakao tartea 1+540 KP-an hasten da, Sarratu-Aperribai aurreko tartea amaitzen den lekuan eta lineako tunelak Abusuko larrialdi galeriarekin bat egin ondoren bukatzen da 4+340 KP-an. Proiektuak lineako tunela, Bengoetxeko geltokia (sasi tunela) eta Galdakaoko geltokiak (leizea) eta Olabarrieta eta Abusuko larrialdietarako galeriak hartzen ditu.

2022ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez, «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeko proiektua. Aperribai-Galdakao tartea» onetsi zen.

«BTMren 5. linearen eraikuntza proiektua. Aperribai-Galdakao tartea»ren xedea Bilboko Hiri Trenbidearen 5. linea berriaren bigarren tartea ezarri ahal izateko egin beharreko herri lanak eraikuntza mailan zehaztea da, Euskotrenek ustiatua, Aperribai auzotik eta Galdakaoko hiriguneraino.

Aperribai-Galdakao tartea Galdakaoko udalerrri barruan garatzen da eta bi geltoki ditu bere baitan: Bengoetxeko geltokia eta Galdakaoko geltokia.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzati-zen zerrenda eta planoak.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren bidez, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedurari hasiera ematea eta desjabetzeen eranskinaren zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen. Interesdunei jakinarazi zitzairen eta 2022ko urriaren 10ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta «Deia» egunkarian argitaratu zen. «El Correo» egunkarian 2022ko urriaren 11n argitaratu zen. Ondasun eta eskubideen zerrenda hori Galdakaoko udaletxeko iragarki-taulan ere jarri zen.

Izapide honetan hamalau alegazio-idazki aurkeztu dira; Zerbitzu Teknikoetara bidali dira, neurriak hartzeko eta kontuan hartzeko, akatsak zuzendu behar badira ere. Erantzun indibidualizatua bidali zaie.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, ukitutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egin da.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo trenbide-azpiegitureko beste elementu batzuk onesteak edo lehendik daudenak aldatzeak lursail berriak erabiltzea eskatzen badu, horietan identifikatutako eragindako ondasun eta eskubideen Nahitaezko Desjabetzearen ondorioetarako, onura publikoko edo gizarte-intereseko deklarazioa egingo da, eta okupatu beharreko eta presakoa dela deklaratu da. Legezko adierazpen horrek nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako prozedurara jotzeko ahalmena ematen dio administrazioari; hartara, lurra okupatu edo ukitutako ondasunak eskuratuko ditu, ondasun edo eskubide horiek deskribatzen dituzten aktak egin ondoren, titularrak identifikatuz eta baloraziorako beharrezkoak diren datuak jasoz, eta, aldez aurretik, okupazioaren aurreko gordailu gisa perituak zehaztutako zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz, eta, hala badagokio, okupatzeko presak eragindako kalteen zenbatekoa ordainduz edo kontsignatuz.

Ondorioz, egindakoa ikusita, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 20., 21. eta 52. artikuluetan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56. artikuluan eta horrekin bat datozen eta oro har aplikatu beharreko gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeako proiektua. Aperribai-Galdakao tartea»k ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta hura okupatu beharra deklaratzeko, Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan adierazitako ondorioekin.

Bigarrena.– Zerrenda horretan agertzen diren jabeei dei egitea, Galdakaoko Udalera joan ondoren, ukitutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko, zerrenda horretan adierazitako egun eta orduetan, eta, hala badagokio, horiek formalki okupatzeko; hala ere, beharrezkoa izanez gero, aukera egongo da lursaila bertaratzeko, interesdunek hala eskatuta.

Egintza horretara interesdunek berek joan beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoei; haien titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte (eskritura publikoak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak edo informazio-oharrak, etab.), bai eta beren eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein agiri ere. Egoki iritziz gero, beren perituekin eta notario batekin batera aurkeztu ahal izango dira, baina hori haien kontura izango da.

Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte okupazioaren aurreko akta egiten den egunera arte, akatsik egonez gero horiek zuzentzeko. Horretarako, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara jo beharko dute idatziz (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 – Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Azpiegituren eta Garraioetako sailburuordeari, hilabeteko

2023ko apirilaren 4a, asteartea

epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoa jartzeko idazkia organo honi edo Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari zuzendu behar zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Nolanahi ere, aurretik aukera izango dute errekerimendua egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 27a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2023ko apirilaren 4a, asteartea

ERANSKINA

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Eragin mota (m ²) | | | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-20 |
|-----------|----------------------------------|--|-------------------------------|---------------------|-------------------------|--------------------------------------|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| 174 | 009-182 Galdakao | Agustín Zamakona Etxebarria | 0 | 0 | 59 | 9:00 |
| 175 | 009-180 Galdakao | Agustín Zamakona Etxebarria | 0 | 0 | 493 | 9:00 |
| 178 CULT | 009-157 Galdakao | Agustín Zamakona Etxebarria | 0 | 0 | 940 | 9:00 |
| 189 | 1011-30007 Galdakao | Hdrs. Avelino Celaya Sagastigordia | 0 | 0 | 6 | 10:00 |
| 191 | 1011-05005 Galdakao | Sixta Barrenetxea kaleko 8 eta 10 zenbakiko Jabeen Erkidegoa | 0 | 0 | 50 | 10:40 |
| 206 | 1011-06005 Galdakao | Sixta Barrenetxea kaleko 30 zenbakiko Jabeen Erkidegoa | 0 | 0 | 47 | 11:20 |
| 207 | 1011-06006 Galdakao | Sixta Barrenetxea kaleko 36 zenbakiko Jabeen Erkidegoa | 0 | 0 | 37 | 11:50 |
| 208 | 1011-41001 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 0 | 0 | 933 | 13:00 |
| 210 | 1011-42-001 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 31 | 69 | 253 | 13:00 |
| 211 | 1011-42002 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 0 | 68 | 121 | 13:00 |
| 212 | 1011-42003 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 0 | 21 | 32 | 13:00 |

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Eragin mota (m ²) | | | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-21 |
|-----------|----------------------------------|---|-------------------------------|---------------------|-------------------------|--------------------------------------|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| 190 | 1011-30009 Galdakao | María Purificación Eguluz Celaya | 0 | 0 | 72 | 9:40 |
| 193 | 1011-43001 Galdakao | Saema, S.L. | 0 | 0 | 359 | 10:20 |
| 194 | 1011-43002 Galdakao | Saema, S.L. Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Zeletxe 2005, S.L. Galdakaoko Udala | 0 | 0 | 405 | 10:20 |
| 195 | 1011-43006 Galdakao | Saema, S.L. Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Zeletxe 2005, S.L. Galdakaoko Udala | 0 | 0 | 249 | 10:20 |
| 196 | 1011-43003 Galdakao | Saema, S.L. | 0 | 0 | 338 | 10:20 |
| 197 | 1011-43004 Galdakao | Saema, S.L. | 0 | 0 | 379 | 10:20 |
| 200 | 1011-44001 Galdakao | Saema, S.L. | 0 | 0 | 531 | 10:20 |
| 201 | 1011-44002 Galdakao | Saema, S.L. | 0 | 0 | 285 | 10:20 |
| 198 | 1011-43005 Galdakao | Zeletxe 2005, S.L. Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Galdakaoko Udala | 0 | 0 | 333 | 11:20 |

2023ko apirilaren 4a, asteartea

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Eragin mota (m ²) | | | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-21 |
|-----------|----------------------------------|---|-------------------------------|---------------------|-------------------------|--------------------------------------|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| 204 | 1011-08002 Galdakao | Zeletxe 2005, S.L. | 0 | 0 | 2 | 11:20 |
| 202 | 1011-44003 Galdakao | Zeletxe 2005, S.L. Zorrotzurre New Urban Development, S.L. | 0 | 2 | 157 | 11:20 |
| 203 | 1011-08003 Galdakao | M. ^a Begoña Loroño Bilbao Jose Echevarría Loroñoren jaraunsleak | 0 | 58 | 89 | 12:20 |
| 234-1 | 1026-01003 Galdakao | María Ángeles Oleaga Fernández | 0 | 0 | 103 | 13:00 |
| 235 | 013-065 Galdakao | Isabel, Juan Cruz eta M. ^a Victoria Larrea Asua Juan José Jauregui, Juan José eta M. ^a Cristina Díaz Larrea José Miguel, Juan María eta Ruperto Larrea Uriarte. | 0 | 0 | 35 | 13:40 |

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Eragin mota (m ²) | | | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-24 |
|-----------|----------------------------------|---|-------------------------------|---------------------|-------------------------|--------------------------------------|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| 209 | 1011-41002 Galdakao | Zeletxe 2005, S.L. Zorrotzurre New Urban Development, S.L. | 0 | 7 | 357 | 9:00 |
| 203-1 | 1011-08003 Galdakao | Bizkaiko Foru Aldundia Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila | 0 | 78 | 154 | 10:00 |
| 234-2 | 012-153 Galdakao | Bizkaiko Foru Aldundia Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila | 0 | 0 | 267 | 10:00 |
| 234-3 | 006-331 Galdakao | Bizkaiko Foru Aldundia Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila | 0 | 0 | 188 | 10:00 |
| 178 | 009-157 Galdakao | Bizkaiko Foru Aldundia Ogasun eta Finantzen Saila Ondare Zerbitzua | 474 | 144 | 1.140 | 10:30 |
| 227_INT_1 | 1018-10001 Galdakao | Guadalupe Sánchez Sánchez | 0 | 0 | 30 | 11:00 |
| 227_INT_2 | 1018-10001 Galdakao | Juan Andrés Vázquez Pérez | 0 | 0 | 0 | 11:30 |
| 172 | 1003-04014 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 124 | 124 | 12:00 |
| 173 | 1043-04001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 122 | 243 | 12:00 |
| 179 | 1064-02001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 7 | 15 | 12:00 |
| 192 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 3.375 | 211 | 5.246 | 12:00 |
| 192-1 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 138 | 128 | 760 | 12:00 |
| 192-2 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 313 | 534 | 12:00 |
| 192-3 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 41 | 322 | 12:00 |
| 195 | 1011-43006 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 0 | 249 | 12:00 |
| 199 | 1011-32001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 12 | 89 | 12:00 |
| 224 | 1016-53001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 25 | 63 | 12:00 |
| 225 | 1016-53001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 36 | 178 | 386 | 12:00 |
| 225-1 | 1016-53001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 57 | 213 | 626 | 12:00 |
| 225-2 | 1016-53001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 64 | 572 | 1.300 | 12:00 |
| 225-3 | 1016-53001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 0 | 1.056 | 12:00 |

2023ko apirilaren 4a, asteartea

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Eragin mota (m ²) | | | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-24 |
|-----------|-----------------------------------|------------------|-------------------------------|---------------------|-------------------------|--------------------------------------|
| | | | Erabateko Desjabetzea | Zortasun iraunkorra | Aldi-baterako Okupazioa | |
| 225-4 | 1016-53001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 0 | 52 | 12:00 |
| 226 | 1016-37002 Galdakao | Galdakaoko Udala | 0 | 45 | 1.016 | 12:00 |
| 227 | 1018-10001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 53 | 292 | 741 | 12:00 |
| 232 | 1019-20001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 36 | 85 | 340 | 12:00 |
| 232-1 | 1019-20001 1018-10001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 7 | 39 | 403 | 12:00 |
| 234 | 1026-01003 Galdakao | Galdakaoko Udala | 129 | 540 | 931 | 12:00 |

TUNELEAN EGITEA

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Tunela | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-20 |
|-----------|----------------------------------|---|----------------|--------------------------------------|
| | | | Metro linealak | |
| 189 | 1011-30007 Galdakao | Hdros. Avelino Celaya Sagastigordia | 24 | 10:00 |
| 190-1 | 1011 – 30008 Galdakao | Sixta Barrenetxea kaleko 9 zenbakiko Jabeen Erkidegoa | --- | 12:20 |
| 211 | 1011-42002 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunsleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 5,5 | 13:00 |
| 212 | 1011-42003 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunsleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 6 | 13:00 |
| 213 | 1011-42004 Galdakao | María Carmen Murillo Celaya Juan María Murillo Celayaren jaraunsleak: Begoñe eta Aintzane Murillo Larragoitia Amelia Basagoiti Celaya | 6,5 | 13:00 |

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Tunela | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-21 |
|-----------|----------------------------------|--|----------------|--------------------------------------|
| | | | Metro linealak | |
| 190 | 1011-30009 Galdakao | María Purificación Eguiluz Celaya | 8 | 9:40 |
| 214 | 1011-42005 Galdakao | Alberto Salterain González M. ^a Cruz Capanaga Magunacelaya | 6,5 | 9:00 |
| 215 | 1011-42006 Galdakao | Alberto Salterain González M. ^a Cruz Capanaga Magunacelaya | 14 | 9:00 |

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerrria | Jabea | Tunela | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-24 |
|-----------|----------------------------------|--|----------------|--------------------------------------|
| | | | Metro linealak | |
| 220 | 1011-42011 Galdakao | Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Zeletxe 2005, S.L. | 8,5 | 9:00 |
| 221 | 1011-42012 Galdakao | Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Zeletxe 2005, S.L. | 9 | 9:00 |
| 222 | 1011-42013 Galdakao | Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Zeletxe 2005, S.L. | 4 | 9:00 |
| 223 | 1011-42014 Galdakao | Zorrotzaurre New Urban Development, S.L. Zeletxe 2005, S.L. | --- | 9:00 |
| 192 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 5 | 12:00 |
| 192-1 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 29 | 12:00 |

2023ko apirilaren 4a, asteartea

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerria | Jabea | Tunela | Deialdia Galdakaoko Udala 2023-04-24 |
|-----------|---------------------------------|------------------|----------------|--|
| | | | Metro linealak | |
| 192-3 | 1011-46001 Galdakao | Galdakaoko Udala | 22 | 12:00 |
| 216 | 1011-42007 Galdakao | Galdakaoko Udala | 7 | 12:00 |
| 217 | 1011-42008 Galdakao | Galdakaoko Udala | 7,5 | 12:00 |
| 218 | 1011-42009 Galdakao | Galdakaoko Udala | 8 | 12:00 |
| 219 | 1011-42010 Galdakao | Galdakaoko Udala | 8 | 12:00 |